

Joseba Iparragirre • ALARDEKO GENERALA •

«Alardeak Antzuolako jaiei nortasuna ematen die»

Irati Agirreazaldeggi / Antzuola

ANTZUOLAKO mairuaren alardean, mairuaz gain bada beste protagonista bat: generala. 25 urtean langintza honetan aritu ostean iaz esan zion agur alardeari Jose Luis Kortabarriak. Aurtengoan Joseba Iparragirrek hartu dio erreleboa. Hona hemen bada aurtengo generalakak kontatu dizkigunak.

■ Zein esanahi dute zuretzat Antzuolako jaiek?

Lanean eta bizitzan darabilgun erritmoa kontutan hartuta, edozein herritako jaiek, geldialdi bat egin eta normalean egiten ez diren gauzak egiteko aprobetxatzeko egunak dira. Antzuolako jaiek duten berezitasun nagusia alardea da. Urtetan zehar mantendu da eta herriari nolabaiteko nortasuna ematen dio.

■ Nolatan aurten mairuaren alardeko generala?

Martxoan Jose Luis Kortabarria, orain arte general papera bete duena, etorri zen nigana ardura hau hartzeko proposamenarekin. Ezetz esatea ez zitzaidan ongi iruditu.

■ Generalaren papera izena bezain garrantzitsua al da?

Erresponsabilitatea eskatzen duen papera da. Jende aurrera atera eta diskurtsoa ez ahaztea, lana ahalik eta egokien betetzea. Beste herri batzutan general kargua duenak agintea ere badu. Hemen, Antzuolan alardeko beste pertsonaia bat gehiago da.

■ Zein da zure eginbeharra?

Kapitainak tropak errebista pasatzeko gertu jartzten ditu, eta nik zaldiarekin beraien aurretik pasatuz oniritzia emango dut. Ondoren herrian desfilea egingo da, eta berriz herriko plaza itzulita diskurtsoa botako dut zaldi gainetik.

■ Zaldi gainean ibiltzen ikasi behar izan al duzu?

Bai, proba batzuk egin ditut zaldiaren jabearekin.

■ Aurreko generalari gomendiorik eskatu al diozu?

Testu guztia buruz esateko gaitasuna hartu nuene-

Joseba Iparragirre

■ ■ ■ «General paparak erresponsabilitatea eskatzen du, lana ahalik eta egokien betetzea.»


an, Jose Luis Kortabarriari errezitatu eta bere iritzia eskatu nion. Ahotsa, zein esaldiri indarra eman... hainbat gauzari buruzko aholkuak eskatu nizkion. Bestalde, berak idatziz eman dit alardeko une bakoitzean zein gauza egin behar ditudan.

■ Inoiz parte hartu al zenuen aurrez alardean?

Txistulari bezala, eta alardeko abesbatzean kantuan ere hartu izan dut parte alardean, baina sekula ez zitzaidan burutik pasa ere egin inoiz paper hau betetzera iritsiko nintzenik. Txikitatik ezagutu izan dut alardea, eta orduan gauza oso formala iruditzen zitzaidan. Parte hartzen zutenak ere urte hartan soldadutzara joan behar ziren mutilak ziren eta ejerzitoarekin lotura bat balu bezala hartzen nuen, beti ere mutiko baten ikuspegitik.

■ Aldaketarik izango zen lehengo alardetik oraingora, ezta?

Bat baino gehiago egingo ziren baina nik gogoan dudana orain dela urte batzuk alardeko arropetan kolorea sartu zela da.



Joseba Iparragirre, Mairuaren Alardeko aurtengo jenerala.

EGUNKARIA

